# GIPUZKOAKO METALA,

## Hego Euskal Herriko soldata igoera handienak eta eskubide berriak dituen hitzarmena lortu du ELAk Gipuzkoako Metalean

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

**Araban, Bizkaian eta Nafarroan gainerako sindikatuek onartutako soldata igoerak baino handiagoak jasotzen ditu hitzarmenak, iragandako KPIa bermatuta: Gipuzkoako eta Bizkaiko lehen mailako ofizialen soldaten artean 6.000 euro baino gehiagoko aldea dago.**

**Lehen aldiz jasotako eskubideen artean daude subrogazio eskubidea bere osotasunean, LGTBIQ+ kolektiboarentzako eta guraso bakarreko familientzako eskubideak, soldata osagarriak enpresako istripuetan edo euskararen normalizaziorako neurriak.**

Gaur, maiatzaren 11n, Gipuzkoako Metalaren zortzigarren bilera egin da, eta ELA ados agertu da hitzarmena berritzeko ADEGIren azken proposamenarekin. Hitzarmena Hego Euskal Herriko onena da, gainerako sindikatuek Araban, Bizkaian eta Nafarroan sinatutakoak baino soldata igoera hobeak jasotzen dituelako, eta lehen aldiz hainbat eskubide bere egiten dituelako. Gainera, guztiak ere bermeekin: Hego Euskal Herriko Metaleko hitzarmen blindatu bakarra da, horregatik, nahitaez bete beharrekoa.

### Soldatak: 6.000 euroko aldea

Hego Euskal Herriko metaleko soldata onenak bermatzen jarraitzen du hitzarmenak. Ondorioz, adibide gisa: Eibarren edo Ermuan lehen mailako ofizial gisa lanean diharduen langileen arteko aldea 6.000 euro baino handiagokoa izango da, eta lizentziadunen edota ingeniarien artean are handiagoa: Gipuzkoan 44.000 euro kobratuko dituzte, Araban eta Nafarroan baino 15.000 euro gehiago, eta Bizkaian baino 8.000 euro gehiago.

Alde batetik, hitzarmenak bermatzen du igoerak aurreko urteko KPIaren arabera egingo direla, urterik urte, eta ez gainerako hitzarmenenetan bezala hiru urteren buruan, eguneratzearen bidez.  Beraz, tauletan soldata igoera 2023an % 5ekoa izango da, beste lurraldeetakoak gaindituta (tauletan informazioa: Arabakoa % 3, Bizkaikoa % 4 eta Nafarroakoa % 4,5). Bestetik, taulen gainetik dauden soldatei dagokionez, hitzarmenak %85eko igoera bermatzen du. Igoera hori % 0koa da Araban eta % 75ekoa Bizkaian, baina kasu honetan kategoriaren soldatarako bakarrik. Azkenik, Gipuzkoan lanaldia 2 ordu murriztu da eta Nafarroarekin batera, urteko lanaldirik txikiena duen hitzarmena da.



**Eskubide berriak**

Azpikontratatutako langile guztientzako subrogazioa jasotzen du hitzarmenak. Lorpen historiko horrek egonkortasuna emango die sektoreko pertsona prekarioenei. Era berean, ELAk euskararen normalizazioa bultzatzen du, hitzarmenean neurri berri bat sartuta: 50 langiletik gorako enpresa bateko langileen ordezkaritzak hala eskatzen badu, enpresako zuzendaritzak hizkuntzaren normalizazioari heldu beharko dio.

LGTBIQ+ eskubideei dagokienez, lehen aldiz beste atal bat gehitu da, eta, horren arabera, administrazio prozesua hasi ondoren genero trantsizioa egiten ari den edozein langile, prozesu hori amaitu ez bada ere, enpresak bere nortasun berriaren arabera onartu beharko du. Aipatzekoa da, halaber, guraso bakarreko familientzako baimen berria ere jaso dela: 8 ordu gehiagoko lizentzia izango dute seme-alabei laguntzeko mediku kontsultetan.

Gainera, % 100eko soldata osagarria gehitzen da lan istripuetan eta lanbide-gaixotasunean, lehen ez bezala. Estaldura horretatik kanpo geratu dira in itinere izandako istripuak (istripuen % 4 inguru). ELAk azpimarratu nahi du ez dituela ulertzen kolektibo hori baztertzeko patronalaren argudioak.

**Mobilizazioak**

Gipuzkoako metalaren hitzarmenak edukirik onena izaten jarraitzen du, beste hitzarmen batzuekiko soldata aldea handituz eta eskubide berriak lortuz. Hori ez litzateke posible izango ELAren lanik gabe, sektoreko ordezkaritzaren % 47 gainditzen baitu eta Gipuzkoako greben %88,17 egiten baitu.

Negoziazioaren hasieran, Gipuzkoako patronalak Araban eta Bizkaian adostutako edukiak hartzen zituen erreferentziatzat. Akordio horiek ez ziren nahikoak ELArentzat, eta nabarmen hobetu dira. Era berean, gogoratu behar da ELAk martxoaren 10ean lehenik LABi eta egun batzuk beranduago gainerako sindikatuei helarazi ziela akordio sindikal bat lortzeko borondatea, gutxieneko konpromiso eta edukiekin, batera negoziatzeko, eta prest agertu zela negoziazioan etenaldiren bat gertatuz gero, maiatzetik ekainera bitartean 6 greba egun deitzeko. Jasotako erantzuna ezezkoa izan zen.

ELAko militantzia hitzarmen hori adosteko prest agertu da, baina borrokak aurrera jarraitzen du. Enpresa negoziazioetan, lurralde probintzialetik abiatuta, aberastasunaren banaketa hobea lortzeko eta langileen eskubideak hobetzeko borrokatuko da ELA, lan duina eta bizitza bateragarri egiteko.



# GIPUZKOAKO METALA,

## ELA logra en el Metal de Gipuzkoa el convenio con más derechos y con la mayor subida salarial de Hego Euskal Herria

**Las mejoras salariales son superiores a las firmadas por el resto de sindicatos en Araba, Bizkaia y Nafarroa, con el IPC pasado garantizado: la diferencia entre trabajar como oficial de primera en Gipuzkoa y Bizkaia pasará a ser de más de 6.000 euros.**

**Entre los derechos recogidos por primera vez están el derecho total a la subrogación, derechos para el colectivo LGTBIQ+ y familias monoparentales, complementos salariales en accidentes y enfermedad en la empresa o para la normalización del euskera**

Tras la octava reunión celebrada hoy, 11 de mayo, de la mesa de negociación, ELA ha trasladado su conformidad a la última propuesta patronal para renovar el convenio del Metal de Gipuzkoa. El convenio es el mejor de Hego Euskal Herria, con mejoras salariales superiores a las firmadas por el resto de sindicatos en Araba, Bizkaia y Nafarroa, e incorporando derechos que han sido recogidos por primera vez en el convenio. Además es el único convenio del Metal blindado ante las reformas laborales, y por ello es de obligado cumplimiento.

**Sueldos: Más de 6.000 euros de diferencia**

El nuevo convenio sigue garantizando los mejores salarios en el Metal de Hego Euskal Herria. Por ejemplo, la diferencia entre trabajar como oficial de primera en Eibar o Ermua pasará a ser de más de 6.000 euros, y entre las personas licenciadas y/o ingenieros es aún mayor: en Gipuzkoa cobrarán 44.000 euros, 15.000 más que en Araba y Nafarroa, y 8.000 euros más que en Bizkaia.

El convenio garantiza que los incrementos se realicen tomando en cuenta el IPC del año anterior y no realizará una actualización dentro de 3 años como en el resto de convenios provinciales. El incremento en el 2023 será del 5%, superando el 3% de Araba, el 4% de Bizkaia y el 4,5% de Nafarroa (se adjuntan tablas). En cuanto a quienes perciben salarios por encima de las tablas del convenio, el convenio los aumenta garantizando un 85% de incremento. Este incremento es del 0% en Araba y del 75% en Bizkaia, pero en este caso solo para el salario de la categoría.

Gipuzkoa reduce 2 horas la jornada y pasa a ser junto a Nafarroa el convenio con la menor jornada anual.



**Nuevos derechos**

Se incluye la subrogación para todos y todas las trabajadoras subcontratadas. Este es un logro histórico que va a dotar de estabilidad a las personas más precarias del sector. Asimismo, ELA impulsa la normalización del euskera con la incorporación en el convenio de una nueva medida: si la representación de la plantilla de una empresa de mas de 50 personas trabajadoras así lo solicita, la dirección de la empresa deberá abordar la normalización de nuestra lengua.

En relación a los derechos LGTBIQ+, por primera vez se añade un nuevo apartado por el que cualquier persona trabajadora que se encuentre realizando el transito de género una vez iniciado el proceso administrativo, aunque este no haya terminado, tendrá que ser reconocido por la empresa según su nueva identidad. Cabe destacar también el nuevo permiso para familias monoparentales: disfrutarán de 8 horas más de licencia para consultas médicas para el acompañamiento de hijos e hijas.

Además, se incorpora el complemento de salario al 100% en accidentes de trabajo y enfermedad profesional derecho este que antes no existía. De esta cobertura se han quedado fuera los accidentes "in itinere" (alrededor del %4 de los accidentes), ELA quiere subrayar que no entiende los argumentos patronales para excluir a este colectivo.

**Movilizaciones**

El convenio del Metal de Gipuzkoa continúa contando con el mejor contenido, aumentando las diferencias salariales con otros convenios y logrando nuevos derechos. Nada de ello sería posible sin el trabajo de ELA, que supera el 47% de representación en el sector y realiza el 88,17% de las huelgas en Gipuzkoa.

Al inicio de la negociación la patronal tomaba como referencia los contenidos acordados en Araba y Bizkaia. Acuerdos que para ELA eran insuficientes, y que se han conseguido mejorar notablemente. Asimismo, cabe recordar que ELA trasladó el 10 de marzo primero a LAB y días más tarde al resto de sindicatos su voluntad de alcanzar un acuerdo sindical con compromisos y contenidos mínimos para negociar de manera conjunta, y mostró su disposición a que de producirse una pausa en la negociación, convocar 6 días de huelga entre los meses de mayo y junio. La respuesta recibida fue negativa.

La militancia de ELA ha mostrado su disposición a acordar este convenio, pero la lucha continúa. En las negociaciones de empresa partiendo del suelo provincial, peleará para conseguir un mejor reparto de la riqueza y mejorar nuestros derechos haciendo compatible el trabajo digno y la vida.

